# 2010EKO URRIAREN 13KO UDALBATZARRAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 13 DE OCTUBRE DE 2010

**Akta zenbakia:** 9/2010
**Bilera data:** 2010-10-13
**Bilera mota:** Ezohiko osoko bilkura
**Deialdia:** Lehenengoa
**Ordu:** 18:00- 18:15
**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia

**Acta nº:** 9/2010
**Fecha:** 13-10-2010
**Tipo de reunión:** Pleno extraordinario
**Convocatoria:** Primera
**Hora:** 18:00 – 18:15
**Lugar:** Salón de plenos del Ayuntamiento

**Bertaratutakoak:**
**Alkatea:** Miguel Izaguirre Recondo

**Reunidos:**
**Alcalde:** Miguel Izaguirre Recondo

**Zinegotziak:**
Juan M. Tomasena Alzuri
Hermenegildo Gonzalez Moran
Consuelo Frutos Gonzalez
Jose Guirado Novo
Maribel Vaquero Montero
Miren Martiarena Barkaiztegui
Gaspar Esnaola Agesta
Juan Ignacio Mendizabal Eguia
Xavier Sasiainbarrena Arakistain

**Concejales:**
Juan Mª Tomasena Alzuri
Hermenegildo González Morán
Consuelo Frutos González
José Guirado Novo
Maribel Vaquero Montero
Miren Martiarena Barkaiztegui
Gaspar Esnaola Agesta
Juan Ignacio Mendizábal Eguia
Xavier Sasiainbarrena Arakistain

**Etortzerik ez dutela adierazi dute:**

Ramon Goikoetxea Abadia
Nerea Sayavera Urchueguía
Gotzone Astiasaran de Miguel

**Ausentes, que se han excusado:**

Ramon Goikoetxea Abadia
Nerea Sayavera Urchueguía
Gotzone Astiasaran de Miguel

**Bitarteko idazkaria:**
Nagore Alkorta Elorza

**Secretaria interina:**
Nagore Alkorta Elorza

**Gaizerrenda:**

**<u>Lehenengoa eta bakarra.-</u> Lanpostuen Zerrenda aldatzea.**

**Orden del día:**

**<u>Primero y único.-</u>Modificación del a Relación de Puestos de Trabajo.**

# 2010EKO URRIAREN 13KO UDALBATZARRARAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 13 DE OCTUBRE DE 2010

**Lehenengoa eta bakarra.- Lanpostuen Zerrenda aldatzea.**

Miguel Izaguirre alkateak hitza hartu eta, aurrena, Ramón Goikoetxea Osoko Bilkurara bertaratu ez izana argitu du.

Alkateak esan du, bilkura honen aurretik egin ziren Bozeramaileen Batzarrean eta Informazio Batzordearen bileran argudiatu zuen bezala, abiaburutzat zera eduki behar dela, administrarien eginkizunak betetzen dituzten laguntzaile deritzenen lanpostuak egun betetzen dituzten pertsonek egindako lanak "aitortzearen" inguruan politikari guztiek azaldutako adostasuna.

Laguntzaile izatetik administrari izaterako urrats hau Lanpostuen Zerrendan islatu da, baina administrarien lanpostuei esleitutako hizkuntza-eskakizunek ez dute uzten lanpostu horiek beteko dituzten pertsonek eskatutako profila betetzea, eta beraz, beren egoera ez da segurtasunez finkatzen, eskatutako profila ez dutelako.

Alkateak berriz ere esan du, lehiaketan aterako diren sorkuntza berriko lanpostuetarako derrigorrezko hizkuntza-eskakizunak ezartzearen alde dagoela, baina administrari-lanpostu hauek beteko dituzten pertsonekin malgutasun-irizpideari eutsi behar zaiola, kontua, egiten dituzten lanak dagozkien lanpostuaren, hots, administrariaren lanpostuaren arabera "legeztatzea" edo egokitzea delako.

Ondoren, diru-bilketa eta kontu-hartzailetza arloko administrariaren lanpostuei ezarritako hizkuntza-eskakizunak aldatzea proposatu du, hau da, Lanpostuen Zerrendan aurrez ezarritako **3.HE** ordez **2.HE** ezartzea.

**Primero y único.-Modificación de la Relación de Puestos de Trabajo.**

Toma la palabra el alcalde Miguel Izaguirre excusando en primer lugar la no presencia del concejal Ramón Goikoetxea en la sesión plenaria.

Señala el alcalde, tal y como lo argumentó en la Junta de Portavoces y en la Comisión Informativa celebradas con anterioridad a esta reunión, que hay que tener como punto de partida el acuerdo que hubo entre todos los políticos sobre el " reconocimiento" de los trabajos realizados por las personas que ocupan actualmente puestos que denominándose auxiliares realizan funciones de administrativos.

Este paso de auxiliares a administrativos ha tenido su reflejo en la Relación de Puestos de trabajo pero los perfiles linguísticos señalados a los puestos de administrativos hacen que alguna de las personas que optan a ese adecuación no cumplan el perfil exigido y por lo tanto su situación no quede fijada con seguridad por la falta del perfil exigido.

Recalca el alcalde, que defiende que en los puestos de nueva creación que se sacarán a concurso, el establecimiento de los preceptivos perfiles lingüísticos, pero que ha de mantenerse un criterio de flexibilidad con las personas llamadas a ocupar esos puestos de administrativo, porque de lo que se trata es de " legalizar" o adecuar las labores que ya vienen realizando con el puesto que a las mismas les corresponde, que es el de administrativo.

A continuación el alcalde propone la modificación de los perfiles lingüísticos establecidos a los puestos de trabajo de administrativo de recaudación e intervención , proponiendo que sea el **PL2** el que se establezca en la RPT en lugar del **PL3** establecido anteriormente.

*Urnietako Udala* — *Ayuntamiento de Urnieta*

*Gipuzkoa*

# 2010EKO URRIAREN 13KO UDALBATZARRAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 13 DE OCTUBRE DE 2010

Udal Talde Sozialistaren bozeramailea den Hermenegildo Gonzálezek hitza hartu eta esan du proposatutako aldaketarekin ados daudela, Modernizazio Planean adostutakoarekin bat datorrelako.

EAJko bozeramailea den Maribel Vaquerok, berriz, hitza hartu eta esan du, 2010eko irailaren 22ko Osoko Bilkuran hizkuntza-eskakizunak aldatzeko onartutako proposamenaren aurka bozkatuko dutela eta horrekin ez dutela Modernizazio Planaren aurka egiten. Ondoren, bere jarreraren arrazoiak eman ditu:

a.- Hizkuntza-eskakizunak aldatzea Osoko Bilkuran behin betikoz onartutako Lanpostuen Zerrendaren aurkakoa da, eta aldi berean, ez ditu betetzen Korporazio honek onartutako Euskara Plana eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabileraren normalkuntza-prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua.
b.- Langileen arteko desberdintasunak sortzen ditu.
c.- Ez du Udal honen euskararen normalkuntzarako txostena errespetatzen. Diru-bilketa eta kontu-hartzailetza arloko administrarien eginkizunak biltzen dituen txosten horrek eginkizunak mugatzeko balio du, ez ordea, hizkuntza-eskakizunak.

Amaitzeko, Maribelek proposatu du izan daitezela kontuan hizkuntza-eskakizunak lanpostuen balorazioa egitean, eta balorazioarekin batera, lanpostuei buruzko txostena eskatu beharko zitzaiokeela Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuordetzari, bere iritzia eman dezan.

Amaitzeko esan du ez duela ulertzen onartuko dena eta ez direla lanpostu guztiak neurri berarekin neurtuko.

Toma la palabra el portavoz del Grupo municipal socialista Hermenegildo González para señalar que están de acuerdo con la modificación propuesta, ya que la misma se corresponde con lo acordado en el Plan de Modernización.

Toma la palabra la portavoz del PNV Maribel Vaquero señalando que votarán en contra de la propuesta de modificación de los perfiles lingüísticos aprobados por acuerdo pleno de fecha 22 de septiembre de 2010 y que con ello no van en contra del plan de modernización. A continuación pasa a exponer los motivos de posicionamiento:

a.-La modificación de los perfiles lingüísticos va en contra de la RPT aprobada con carácter definitivo por pleno, a la vez que incumple el Plan de euskera aprobado por esta Corporación y el Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que s eregula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
b.-Provoca desigualdades entre los trabajadores.

c.-No se respeta el informe del normalizador de euskera de este Ayuntamiento..El informe emitido, que recoge las funciones de los adminisdrativos de intervención y recaudación , sirve para delimitar las tareas pero no los perfiles lingüísticos.

Para finalizar Maribel propone que se tenga en cuenta el perfil lingüístico en la valoración de los puestos de trabajo y junto con la valoración se debería de solicitar un informe sobre los mismos a la ViceConsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco para que emitiese un informe al respecto.

Finzaliza su exposición señalando que no entiende lo que se va a aprobar y que se crearán agravios comparativos.

# 2010EKO URRIAREN 13KO UDALBATZARRAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 13 DE OCTUBRE DE 2010

Iñaki Mendizabalek hitza hartu eta esan du bi alderdi bereiztu behar direla:
1.- Legaltasunarena.
2.- Udalaren egungo konfiguraziora egokitzearena, hau da, arazo gehiago ez sortzearena.

Kontratazio eta Langileen Informazio Batzordeak 2010eko urriaren 8an eta Bozeramaileen Batzordeak urriaren 4an egindako bileretan gai honen inguruan eztabaidatu eta informazioa eman zela ikusirik.

Alkateak gaia bozkatzea proposatu eta ondorengoa izan da emaitza:

Aldekoak: 7 ( UDA 2, PSE- PSOE 3, Iñaki Mendizabal eta Xabier Sasianbarrena)

Aurkakoako: EAJ 3

Abstentzioak: 0.

Bozketaren ondoren, Osoko Bilkurak gehiengo batez honakoa

**ERABAKI DU**

**Lehenengoa.-** Urnietako Udalean Langile Funtzionarioentzat gordetako Lanpostuen Zerrenda behin betiko onartzea.

**Bigarrena.-** Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen artikuluari eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 15.1. eta 17. artikuluei jarraiki, erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agindua ematea, herritar guztiek horren berri izan dezaten.

Toma la palabra Iñaki Mendizábal para señalar que debemos de diferenciar dos aspectos:
1.- El de legalidad.
2.-La adecuación a la configuración actual del Ayuntamiento, no crear más problemas.

Visto que en la Comisión Informativa de Contratación y Personal celebrada el día 8 de octubre y la Junta de Portavoces del día 4 de octubre de 2010 se debatió e informó sobre este tema.

El alcalde ha propuesto someterlo a votación, con el siguiente resultado:

A favor: 7 ( UDA 2, PSE- PSOE 3, Iñaki Mendizabal y Xabier Sasianbarrena)

En contra: 3 PNV

Abstenciones: 0.

Tras la votación, el Pleno por mayoría de los asistentes ha adoptado el siguiente

**ACUERDO**

**Primero.-** Aprobar definitivamente la Relación de Puestos de Trabajo reservados al Personal Funcionario del Ayuntamiento de Urnieta.

**Segundo.-** Ordenar su publicación en el Boletín oficial de Gipuzkoa de conformidad con el artículo 16 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca y los artículos 15.1.- y 17 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, para su general conocimiento.

Urnietako Udala — Ayuntamiento de Urnieta

Gipuzkoa

# 2010EKO URRIAREN 13KO UDALBATZARRARAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 13 DE OCTUBRE DE 2010

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak bukatutzat eman du ohiko osoko bilkura hau, goiburuan adierazitako egunean, eguerdiko ordubata laurden gutxiagotan, eta nik Urnietako bitarteko idazkariak, hala egiaztatu dut, alkatearen oniritziarekin.

Finalmente, no habiendo más asuntos que tratar, el alcalde da por finalizado el presente pleno extraordinario, siendo las seis y cuarto cuarto de la fecha indicada en el encabezamiento, se levanta la sesión, de la que yo, la secretaria interina de Urnieta, certifico con la aprobación del Alcalde.

Sin.: Nagore Alkorta

Bitarteko idazkaria,

Sin.: Mikel IzagirreRekondo

Alkate-lehendakaria,